

# EZ NAIZ ASPERTUKO



## Poto konpon

Bertso bakoitzean, potoa aurkitu eta konpontzen saiatuko gara. Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu.



Doinua:

**Haizeak bidali du  
Zortziko txikia**

Nagiak nauka sarri  
logelan **menpeko**  
eta ez naiz kapaza  
ezer **egiteko**  
leihotik begiratzuz  
pentsatzen **hobeto**  
kalera atera naiz  
zerbait **egiteko**.

Korrika hasi eta  
zelako **abaila**  
alboan gazte batzuk  
esaten "ze **maila**".  
Trap eta reggetoia  
entzuten, hau **maila!**  
Nik gustukoena dut  
Rapean **Free Styla**



**OINAK**

- ASMATZEKO
- KONTATZEKO
- JARRAITZEKO
- IZEKO



**OINAK**

- SAILA
- IRAILA
- TOALLA
- ZAILA

Pentsatzen nabil goibel  
ta buru **makurra**  
horma bat ikusi dut  
eta ez da **hezurra**  
nire irtenbidea  
gaurkoan **Parkourra**  
saltoka ariko naiz  
hautsi gabe **hezurra**.

Lagunek esan dute  
goazen **abestera**  
bertso eskolan dugu  
herrian **aukera**.  
Bertso Hopa abestu  
ta gero **kalera**.  
Merezi du irtetea  
sarritan **kalera!**



**OINAK**

- IKURRA
- LAPURRA
- GEZURRA
- AGURRA



**OINAK**

- AURRERA
- OHERA
- ARTEGA
- ETXERA